# GIPUZKOAKO ORGANOAK PLAZARA 2025



# GIPUZKOAKO ORGANOAK PLAZARA 2025



musikene

GIPUZKOA
Ekin. Zaindu. Bizi.

Donostiako Elizbarrutia
Diócesis de San Sebastián

## ORGANOAK PLAZARA 2025

Gipuzkoako Foru Aldundiak ibilbide luzea egin du gure ondarea babesteko konpromisoan, eta, bereziki, gure organoen babesa barne hartzen du; izan ere ondare artistiko handia da, Europako organoen bilduma onenetako bat.

Jatorrizko instrumentu ugari kontserbatu eta zaharberritu dira, eta horien inguruan sustapen eta hedapen lana egiten da.

Ildo horretan, Gipuzkoako organoak plazara programa Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuak, Donostiako Elizbarrutiak eta Musikenek -Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiak- batera sustatutako ekimena da.

Programa hau funtsezkoa da lurraldeko musika-ondareari balioa emateko, lehen mailako musikariak bilduz eta interprete berrien parte-hartzea bultzatuz.

Profesional horiek bereziki aipatu nahi nituzke, dedikazio berezia eskatzen duen eta, batzuetan, ezagutzen ez dugun tresna batean egiten duten lanagatik eta eskuratzen duten prestakuntzagatik.

Ataun, Donostia, Azkoitia, Bergara eta Usurbil zaletasun leialen topagune izango dira eta aukera bikain hau aprobetxatuz, berez artelan bat diren instrumentu horiek entzutera lehen aldiz hurbilduko diren pertsonen topagune ere.

## ORGANOAK PLAZARA 2025

La Diputación Foral de Gipuzkoa está comprometida con la protección de nuestro patrimonio en el que está incluido, de manera destacada la Conservación de nuestros órganos; un gran patrimonio artístico que configura una de las mejores colecciones de órganos de Europa.

Son un importante número de instrumentos originales, que se han conservado y restaurado, y alrededor de los cuales se realiza una labor de promoción y difusión.

En esta línea, el programa Gipuzkoako organoak plazara es una iniciativa conjunta promovida por el Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa, la Diócesis de San Sebastián y Musikene - Centro superior de música del País Vasco.

Este programa, constituye una pieza clave para la puesta en valor del patrimonio musical del territorio, dando cita a músicos de primer nivel e impulsando la participación de nuevos intérpretes.

A estos profesionales, quisiera mencionar especialmente por su trabajo y formación en un instrumento que requiere una dedicación especial, y que, a veces desconocemos.

Ataun, Donostia, Azkoitia, Bergara y Usurbil serán punto de encuentro de una fiel afición y de quienes aprovechando esta magnífica oportunidad, se acerquen por primera vez a escuchar estos instrumentos que son, en sí mismos también, una obra de arte.

**Goizane Alvarez Irijoa**
Kultura Diputatua
Diputada de Cultura

Gipuzkoako Organoak Plazara zikloaren zortzigarren edizioa aurkezten dugu. Ziklo hau Musikenek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatzen dute, eta sendotzea lortu dugu, helburutzat hartuta gure organo-ondarea eta organo-errepertorioa publikoarengana hurbiltzea, askotariko jarduerak dituen ziklo moldakor baten bidez.

Aurreko edizioetan bezala, espero dugu oraingo honetan ere publikoak gozatzea Gipuzkoak berea duen organo-ondare handi hori nabarmentzeko prestatu dugun kalitate goreneko programazioaz. Aurtengoan, herri hauetako organo enblematikoak bisitatuko ditugu: Azkoitia (Andre Mariaren Jasokundearen eliza), Ataun (Tourseko San Martin eliza), Bergara (San Pedro eliza), Usurbil (Salbatore eliza) eta Donostia (San Bizente eliza eta Koruko Andre Mariaren basilika).

Bost egunez, apirilaren 30etik maiatzaren 4ra, organo zoragarri horiek ezagutzeko aukera izango dugu, nazioarteko artisten eta Musikenen organoa ilusioz ikasten ari diren gazte talentudunen eskutik.

Zikloari hasiera emateko, Musikeneko zigilua daramaten bi kontzertu izango ditugu. Lehenengoa, apirilaren 30ean (asteazkena) izango da Donostiako San Bizente elizan: organorako musikagatik nazioartean ezagunak diren Cesar Frank eta Maurice Duruflé konpositoreen obrak eskainiko dituzte Musikeneko organoko ikasleek. Berebiziko estreinaldi bat entzuteko aukera ere izango dugu hitzordu berean, Mª Eugenia Luc konpositore eta Musikeneko irakasleak Prière de l’eau izeneko enkarguzko obra aurkeztuko baitu bertan. Bigarren kontzertua maiatzaren 1ean (osteguna) izango da, Azkoitiko Cavaillé-Coll organoan, Víctor Perea Musikeneko ikasle egresatuaren eskutik.

Maiatzaren 2an, ostiralean, Michel eta Yasuko Bouvardek askotariko programa

Presentamos la octava edición del ciclo Gipuzkoako Organoak Plazara, ciclo impulsado por Musikene junto con la Diputación de Gipuzkoa y que hemos logrado consolidar con el objetivo de acercar nuestro patrimonio organístico y el repertorio de órgano al público a través de un ciclo versátil con actividades variadas.

Al igual que en anteriores ediciones esperamos que el público disfrute de una programación de máxima calidad que pretende poner de relieve el gran patrimonio organístico del que Gipuzkoa puede presumir. Este año nos acercaremos a los órganos de Azkoitia (iglesia de Santa María La Real), Ataun (iglesia de San Martín de Tours), Bergara (iglesia de San Pedro), Usurbil (iglesia de San Salvador) y de las donostiarras San Vicente y Santa María del Coro.

Durante cinco intensos días, del 30 de abril al 4 de mayo, tendremos la oportunidad de conocer los maravillosos órganos citados de la mano de artistas internacionales y de joven talento que estudia con ilusión órgano en Musikene.

El ciclo comienza con dos conciertos 100% con el sello de Musikene. El primero de ellos, en Donostia el miércoles 30 de abril en la Iglesia de San Vicente, será ofrecido por alumnado de la clase de órgano del centro con obras de Cesar Frank y Maurice Duruflé, dos compositores internacionalmente conocidos por su música para órgano, y contará también con el estreno absoluto de la obra de encargo titulada “Prière de l’eau” de la compositora y profesora de Musikene MªEugenia Luc. El segundo concierto tendrá lugar el jueves 1 de mayo en el Cavaillé-Coll de Azkoitia.y será ofrecido por el alumno egresado de Musikene Víctor Perea.

El viernes 2 de mayo Michel y Yasuko Bouvard ofrecerán en la Basílica de San-

bat eskainiko dute Donostiako Koruko Andra Mariaren basilikan, lau eskutara. Aldez aurretik, egun horretan bertan, organoko ikasleek Michel Bouvarden eskola magistralak jasotzeko aukera izango dute San Bizente elizan.

Maiatzaren 3an, larunbatean, Bergarako San Pedro elizako Stolz organo zaharberrituaren zirrikituak aurkeztuko dizkiogu jendeari goizeko hitzaldi-kontzertu batean. Bertan, Aitor Olea organista titularrak organo horren ezaugarriak eta zaharberritzearen xehetasunak azalduko ditu, eta kontzertu interesgarri bat eskainiko du.

Maiatzaren 3an bertan, arratsaldean, Usurbilgo organoa bisitatuko dugu, eta, bertan, aukera izango dugu Sain Étienne de Caengo Cavaille-Coll organo ospetsuaren organista titularra den Erwan Le Pradok prestatu eta interpretatutako programa bat entzuteko.

Zikloa maiatzaren 4an amaituko da, igandean, Bremengo Unibertsitateko organo historikoetako irakasle Krzysztof Urbaniakek Ataungo organo barrokoan eskainiko duen kontzertu batekin.

Aurten ere, maisutasunak, ikaskuntzak, aurkikuntzak, sorkuntza berriak eta tradizioak bat egingo dute ziklo honetan, Gipuzkoako organo zoragarri horien magiara hurbiltzeko.

Eskerrak eman nahi dizkiet Gipuzkoako Foru Aldundiari, zikloan inplikatutako elizei eta Musikeneko irakasle, ikasle eta bertan trebatutako gazteei beren parte hartzeagatik eta laguntzagatik, haiei esker bihurtuko baita ilusioz betetako proiektu hau errealitate, beste behin.

ta María del Coro de Donostia un variado programa que incluye obras a cuatro manos. Previamente, ese mismo día, el alumnado de órgano habrá tenido la ocasión de disfrutar de clases magistrales con Michel Bouvard en la iglesia de San Vicente.

El sábado 3 de mayo tendremos el honor de presentar al público en un concierto conferencia matinal, los entresijos del recientemente restaurado órgano Stolz de la iglesia San Pedro de Bergara, donde su organista titular Aitor Olea presentará sus características y los detalles de su restauración, además de ofrecer un interesante concierto.

El mismo 3 de mayo por la tarde nos acercaremos al órgano de Usurbil con un programa confeccionado e interpretado por Erwan Le Prado, organista titular del afamado órgano Cavaillé-Coll de Sain Étienne de Caen.

El ciclo concluirá el domingo 4 de mayo con un concierto en el órgano barroco de Ataun de la mano de Krzysztof Urbaniak, profesor de órganos históricos de la Universidad de Bremen.

Un año más, la maestría, el aprendizaje, el descubrimiento, la nueva creación y la tradición se unen en este ciclo para acercarnos a la magia de estos magníficos órganos del territorio guipuzcoano.

Agradezco a la Diputación de Gipuzkoa, a las iglesias implicadas en el ciclo y al profesorado, alumnado y jóvenes formados en Musikene su participación y colaboración para que este ilusionante proyecto sea, una edición más, una importante realidad.

**Miren Iñarga**
Zuzendari nagusia eta akademikoa Musikene, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia
Directora General y Académica Musikene, Centro Superior de Música del País Vasco

Donostiako Gotzaindegiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bide luzea egin dugu elkarlanean gure organo ondare bikaina babesteko, kontserbatzeko eta balioesteko. Aurten ere, “Organoak plazara” ekimenak aukera bikaina ematen digu organoaren musika Gipuzkoako plaza, eliza eta espazio publikoetara eramateko, eta, horrela, lankidetza emankor horren emaitza den kontzertu programa jendaurrean jartzeko.

Organoa tresna liturgikoa baino askoz gehiago da: gure nortasun kultural eta espiritualaren ikurra da, tradizioaren eta sormen garaikidearen arteko zubia. Mendeetan zehar, Gipuzkoak tradizio musikal aberatsa landu du, eta organoak funtsezko zeregina bete du tradizio horretan. Konpositoreek, organistek eta kapera-maisuek gure historia musikala aberastu dute, eta errepertorio zabala utzi digute ondorengoei. Errepertorio horrek bizirik jarraitzen du bai liturgian bai beste une batzuetan, eta merezi du guztiok ezagutzea eta harekin gozatzen jarraitzea.

Babesteko eta zabaltzeko bide horretan, Gotzaindegiaren eta Aldundiaren arteko batzorde mistoaren zeregina erabakigarria izan da. Haren lanari esker, organo asko zaharberritu dira, eta gaur egun ere, gure elizetan eta kulturguneetan haien soinua entzuteko aukera izaten jarraitzen dugu. Zeregin hori, ordea, ez da orain egiten dugun ahalegin bat soilik, etorkizunera begira gure gain dugun erantzukizun bat ere bada. Gure lurraldeko gizon-emakumeen belaunaldi berriek ondare hori ezagutu eta balioestea nahi dugu, aztertzea, interpretatzea eta are urrunago eramatea.

Horregatik, bidezkoa da proiektu hau aurrera ateratzea ahalbidetu duten pertsona guztiei eskerrak ematea: erakundeei, beren talentu eta ahaleginarekin tradizio

Desde hace años, el Obispado de San Sebastián y la Diputación Foral de Gipuzkoa continúan aunando esfuerzos para proteger, conservar y poner en valor nuestro magnífico patrimonio organístico. Un año más, la nueva edición de “Organoak plazara” nos brinda la oportunidad de acercar la música de órgano a nuestras plazas, templos y espacios públicos en Gipuzkoa, ofreciendo un programa de conciertos que es fruto de esta fecunda colaboración.

El órgano es mucho más que un instrumento litúrgico: es un símbolo de nuestra identidad cultural y espiritual, un puente entre la tradición y la creatividad contemporánea. A lo largo de los siglos, Gipuzkoa ha cultivado una rica tradición musical en la que el órgano ha desempeñado un papel fundamental. Compositores, organistas y maestros de capilla han engrandecido nuestra historia musical, legándonos un repertorio que sigue vivo, tanto en la liturgia como en otros momentos, que merece seguir siendo conocido y disfrutado por todos.

En este camino de preservación y difusión, la labor de la comisión mixta del Obispado y la Diputación ha sido decisiva. Gracias a su dedicación, numerosos órganos han sido restaurados y siguen resonando hoy con toda su plenitud en nuestras iglesias y espacios culturales. Esta tarea, sin embargo, no es solo un empeño del presente, sino también una responsabilidad para el futuro. Queremos que las nuevas generaciones de hombres y mujeres de nuestra tierra conozcan y valoren este legado, que lo estudien, lo interpreten y lo lleven aún más lejos.

Por ello, es de justicia agradecer a todas aquellas personas que hacen posible este proyecto: a las instituciones, a los y las organistas que con su talento y esfuerzo mantienen viva esta tradición, a los jó-

horri bizirik eutsi dioten organistei, Musikenen eta beste ikastetxe batzuetan lan horrekin jarraitzeko prestatzen diren ikasle gazteei, erlijio musikaren aldeko apustua egiten jarraitzen duten parrokiei, eta haien babes eta gogo biziz guztion altxor hori zaintzen laguntzen digutenei.

Pozgarria da "Organoak plazara" jaialdiaren aurtengo edizioa aurkeztea, haren bidez gipuzkoar guztiek organoaren edertasunaz eta handitasunaz gozatzeko aukera izango baitute ingurune pribilegiatuetan. Edizio berri hau bat dator Elizaren Jubileu unibertsalarekin eta Donostiako elizbarrutiaren diamante ezteiekin. Mugarri historiko txiki horrek gogorarazten digu aurrera jarraitzen dugula, belaunaldi berriei gure historiako onena eskainiz. Musika honek gure espiritua goratzen jarrai dezala, gure kultura elikatuz eta musikan dugun oinorde aberatsa erakutsiz.

Amaitzeko, jende guztia animatu nahi dut jaialdian parte hartzera eta gure organo zoragarriak deskubritzen jarraitzera. Kontzertu ziklo hau gure historiaren ospakizuna izan dadila, eta hain gurea den arte honen hedapenean eta balioespenean beste urrats bat.

venes estudiantes que se forman en Musikene y otros centros para continuar esta labor, a las parroquias que siguen apostando por la música sacra, y a quienes con su apoyo y entusiasmo contribuyen a la preservación de este tesoro común.

Es un motivo de alegría presentar esta nueva edición de "Organoak plazara", un festival que permitirá a los guipuzcoanos y guipuzcoanas disfrutar de la belleza y la grandeza del órgano en entornos privilegiados. Coincide esta nueva edición con el Jubileo universal de la Iglesia y con las bodas de diamante de nuestra diócesis de San Sebastián. Un pequeño hito histórico que nos recuerda que seguimos adelante, ofreciendo lo mejor de nuestra historia a las nuevas generaciones. Que esta música siga elevando nuestro espíritu, alimentando nuestra cultura y recordándonos la riqueza de nuestra herencia musical.

Os animo a todos y a todas a participar y a seguir descubriendo la maravilla de nuestros órganos. Que este ciclo de conciertos sea una celebración de nuestra historia y un paso más en la difusión y aprecio de este arte tan nuestro.

**Fernando Prado Ayuso**
Donostiako Elizbarrutiko Gotzaina
Obispo de la Diócesis de San Sebastián

# EGITARAU OROKORRA - PROGRAMA GENERAL

## DONOSTIA

**San Bizente Eliza / Iglesia de San Vicente**

**Apirilak 30 abril, Asteazkena**

20etan

Musikeneko Organo klasearen Kontzertua

Concierto de la clase de Organo de Musikene

## AZKOITIA

**Santa Maria La Real Eliza / Iglesia Santa María La Real**

**Maiatzak 1 mayo, Osteguna**

17,30etan

Kontzertua / Concierto **Victor Perea García**

## DONOSTIA

**San Bizente Eliza / Iglesia de San Vicente**

**Maiatzak 2 mayo, Ostirala**

Organoari buruzko Masterclass sobre el órgano

10etan

**Michel Bouvard**

## DONOSTIA

**Santa Maria Eliza / Iglesia de Santa María**

**Maiatzak 2 mayo, Ostirala**

20etan

Kontzertua / Concierto: **Michel eta Yasuko Bouvard**

## BERGARA

**Ariznoako San Pedro Eliza / Iglesia San Pedro de Ariznoa**

**Maiatzak 3 mayo, Larunbata**

12etan

Kontzertua-Konferentzia / Concierto-Conferencia **Aitor Olea**

## USURBIL

**San Salvador Eliza / Iglesia de San Salvador**

**Maiatzak 3 mayo, Larunbata**

19,30etan

Kontzertua / Concierto **Erwan Le Prado**

## ATAUN

**Tourseko San Martinen Eliza / Iglesia de San Martín de Tours**

**Maiatzak 4 mayo, Igandea**

12,30etan

Kontzertua / Concierto **Krzysztof Urbaniak**

# DONOSTIA

**San Bizente Eliza / Iglesia de San Vicente**

**Apirilak 30 abril, asteazkena**

20etan

**Iñaki Sánchez**

C. Franck ............................................. Primer coral en Mi M
(1822-1890)

**Santiago Sacristán**

C. Franck ............................................. Segundo coral en Si m
(1822-1890)

**Javier Moreno**

M. E. Luc ............................................. Prière de l'eau for organ
(1958)
Estreno Absoluto

M. Duruflé ............................................. Prélude, adagio et choral varié sur le thème du "Veni Creator"
(1902-1986)

**Roberto Hernández**

M. Duruflé ............................................. Suite Op. 5, Prélude, Siciliènne, Toccata

**Musikeneko Organo klasearen Kontzertua**
**Concierto de la clase de Organo de Musikene**

# AZKOITIA

**Santa Maria La Real Eliza / Iglesia de Santa María La Real**

**Maiatzak 1 mayo, Osteguna**

17:30etan

J.S. Bach ............................................. Fantasia Super “Komm, heiliger Geist”
(1685-1750)

C. Franck ............................................. Troisième Choral
(1822-1890)

M. Reger ............................................. Benedictus op. 59 Nº9
(1873-1916)

J. Reubke ............................................. Der 94 Psalm (Sonate)
(1834-1858)

**Victor Perea**, Organo

## VICTOR PEREA

Getafen jaio zen, Madrilen. Hiri horretan hasi zituen musika-ikasketak, pianoko eta gitarrako espezialitateetan, eta, ondoren, organoko espezialitatean. Organo-espezialitateko goi-mailako titulua eskuratu zuen Musikene Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegian, Esteban Landart, Karol Mossakowski, Mónica Melcova eta Anne Landa irakasleen eskolak jasota. Era berean, Madrilgo Arturo Soria Musika Kontserbatorio Profesionaleko organo-espezialitateko tituludun profesionala da. Ikastetxe horretan, Carlos Arturo Guerra Parra eta Ángel Montero Herrero irakasleekin ikasi zuen, eta Organoko Gradu Amaierako Saria eta Ohorezko Aipamena lortu zituen konposizioan. Kontserbatorio horretan bertan, baxu jarraitua landu zuen Denise de la Herrán irakaslearekin eta ganbera-musika Jesús Sánchez irakaslearekin; haiekin batera, Antzinako Musikako errezital askotan parte hartu zuen. Gaur egun, organo-espezialitateko Musika Masterra ikasten ari da *Stuttgart-eko Staatliche Hochschule für Musik und Darstellende* zentroan, Jörg Halubek irakaslearen zuzendaritzapean.

Prestakuntzako urte horietan guztietan, organo-musikarekin lotutako master eta ikastaro askotan parte hartu du, besteak beste, Roberto Fresco, Monserrat Torrent, Roland Dopfer, Olivier Latry, Javier Artigas, Pieter van Dijk edo Matthias Havinga irakasleek emandakoetan.
Ahots-musika, batez ere musika korala, bere bizitzaren parte da; horregatik, 2018an, abesbatzak zuzentzeko ikastaroa egin zuen Madrilgo Carlos III.a Unibertsitatean, Nuria Fernández Herránz irakaslearekin.

Nace en Getafe, Madrid. En esta ciudad comienza sus estudios musicales en las especialidades de Piano y Guitarra y posteriormente Órgano. Es Titulado Superior en la especialidad de Órgano por el Centro Superior de Música del País Vasco–Musikene donde se formó con los profesores Esteban Landart, Karol Mossakowski, Mónica Melcova y Anne Landa. Así mismo es Titulado Profesional en la especialidad de Órgano por el Conservatorio Profesional de Música “Arturo Soria” de Madrid, centro en el que estudió con los profesores Carlos Arturo Guerra Parra y Ángel Montero Herrero, obteniendo el Premio Fin de Grado en Órgano y Mención de Honor en Composición. En este mismo Conservatorio trabajó el Bajo continuo con la profesora Denise de la Herrán y la Música de cámara con el profesor Jesús Sánchez, participando junto a ambos en numerosos recitales de Música Antigua. Actualmente estudia el Máster de Música en la especialidad de Órgano en la *Staatliche Hochschule für Musik und Darstellende* de Stuttgart bajo la dirección del profesor Jörg Halubek.

Durante todos sus años de formación ha participado en numerosas Masterclasses y cursos relacionados con la música de Órgano impartidos por profesores como Roberto Fresco, Monserrat Torrent, Roland Dopfer, Olivier Latry, Javier Artigas, Pieter van Dijk o Matthias Havinga entre otros.

La música vocal, especialmente la música coral, es parte de su vida, por ello en 2018 realizó el Curso de Dirección de Coro en la Universidad Carlos III de Madrid con la profesora Nuria Fernández Herránz.

Kontzertuak eman ditu organista eta kontinuista gisa, Espainiako hainbat elizatan, hala nola Vicálvaroko Nuestra Señora de la Antigua elizan, Madrilgo Oratorio del Caballero de Gracia elizan, Colmenar de la Orejako Santa María la Mayor elizan, Segoviako Nuestra Señora de la Fuencisla santutegian, Donostiako Victoria Eugenia antzokian eta Ávilako San Vicente basilikan; baita hainbat musika-jaialditan ere, esaterako, Musika Hamabostaldian eta Organoak Plazara zikloan, Donostian.

2016tik 2019ra, Madrilgo Real Oratorio del Caballero de Gracia elizako organista titularra izan zen, eta 2022tik 2023ra bitartean, berriz, organista aritu zen Donostiako Martuteneko Sortzez Garbiaren parrokian. Era berean, hainbat elizatan aritu du organista gisa, hala nola Madrilgo Nuestra Señora de la Paz elizan, Vicálvaroko Nuestra Señora de la Antiguan, Donostiako Koruko Andre Mariaren basilikan eta Madrilgo Santa María la Real de La Almudena katedralean. Gaur egun, Madrilgo Santa Cruz parrokiako Mutin/Cavaillé-Coll organoaren organista titularra da.

Ha ofrecido conciertos como organista y continuista en diversas iglesias de la geografía española como son la iglesia de Nuestra Señora de la Antigua en Vicálvaro, el Real Oratorio del Caballero de Gracia en Madrid, la iglesia de Santa María la Mayor de Colmenar de Oreja, el Santuario de Nuestra Señora de la Fuencisla en Segovia, el Teatro Victoria Eugenia en San Sebastián o la Basílica de San Vicente en Ávila entre otros; así como en festivales de música como la Quincena Musical y Organoak Plazara en San Sebastián.

Desde 2016 hasta 2019 ha sido el OrganistaTitular en el Real Oratorio del Caballero de Gracia de Madrid y entre los años 2022 y 2023 ha sido el organista en la Parroquia de la Inmaculada Concepción de Martutene de San Sebastian. Así mismo ha colaborado como organista en diversas iglesias, como son la Iglesia de Nuestra Señora de la Paz en Madrid, Iglesia de Nuestra Señora de la Antigua en Vicálvaro, Basílica de Santa María del Coro en San Sebastián y la Catedral de Santa María la Real de La Almudena de Madrid. Actualmente es el organista titular del órgano Mutin/Cavaillé-Coll de la Parroquia de Santa Cruz de Madrid.

## DONOSTIA

**San Bizente Eliza / Iglesia de San Vicente**

**Maiatzak 2 mayo, ostirala**

10:00etan

Masterklasa / Masterclass:
**Michel Bouvard**

# DONOSTIA

**Santa Maria Eliza / Iglesia de Santa María**

**Maiatzak 2 mayo, ostirala**

20:00etan

M.A. Charpentier ................................. Prélude au Te Deum (à 3 mains)
(1643-1704)

E. Du Caurroy ...................................... Cinq Fantaisies sur "Une jeune Fillette"
(1549-1609) (transcription André Isoir)

F. Couperin ......................................... Musètes de Choisi et de Taverni
(1668-1733) enchainées (à 3 mains)

W.A. Mozart ......................................... Divertimento en Sib majeur, K 240
(1756-1791) (à 4 mains)
Allegro
Andante grazioso
Menuetto
Trio
Allegro

R. Schumann ....................................... 4eme étude en forme de canon, pour
(1810-1856) piano-pédalier

J. Bouvard ........................................... Variations sur un Noël bressan
(1905-1996) Theme – duo de Flûtes en canon –
Basse et dessus de trompette
Récit de tierce en taille ou de cromorne
– Thème en Majeur – Plein jeu

J.S. Bach ............................................. Crucifixus de la Messe en si (à 3 mains)
(1685-1750) (transcription M. Bouvard)

F. Liszt................................................. Variations über den basso continuo
(1811-1886) der ersten Satzes der Kantate

"Weinen, Klagen, Sorgen, Zagen" und
des Crucifixus der H-moll-Messe von
Johan Sebastian Bach

Kontzertua / Concierto:
**Michel Bouvard eta Yasuko Uyama**

## MICHEL BOUVARD

Michel Bouvardek ibilbide bikoitza egin du kontzertugile eta irakasle gisa 30 urtez. Nazioartean interprete frantses kutunenetakotzat dute, eta Europako organo historiko ederrenetan eta Asiako eta Ameriketako kontzertu aretoetan erregulartasunez jotzera gonbidatzen dute. Mila errezital baino gehiago eskaini ditu 25 herrialdetan baino gehiagotan.

Michel Bouvardek bere aitona Jean Bouvardi zor dio bokazioa, Louis Vierneren ikasle izan zenari. Parisko CNSMn idazketa-eskolak jaso ondoren, André Isoir-en organo-klaseetan eta Saint-Séverineko organistekin (Jean Boyer, Francis Chapelet, Michel Chapuis) trebatu zen. Lehenengo saria jaso zuen Frantziako Tolosako Nazioarteko Lehiaketan (1983), eta horrek markatu zuen bere ibilbidearen hasiera. 1985ean, Xavier Darassek deitu zion Tolosako Kontserbatorioko organo-eskoletan haren ordezko izateko, eta hiriko eta eskualdeko ondarearen alde egiten jarraitu zuen hala. 1996an, Willem Jansenekin batera, Toulouse-les-orgues izeneko nazioarteko jaialdia sortu zuen.

Michel Bouvard Parisko CNSMn ere izan zen organo-irakasle 1995etik 2021era, eta, bertan, Olivier Latry lagunarekin batera, jatorri guztietako ikasleak erakarriko zituen hezkuntza-lankidetza original bat garatu zuen.

Tolosako Saint-Sernin basilikako Cavaille-Coll organo historikoaren titularra da, eta, 2010ean, Versaillesko jauregiko errege-kaperako «barrutikako» organista izendatu zuten.

Michel Bouvard ha desarrollado una doble carrera como concertista y docente durante 30 años. Reconocido en el panorama internacional como uno de los intérpretes franceses más entrañables, invitado a tocar regularmente en los órganos históricos más bellos de Europa, así como en las salas de conciertos de Asia y del continente americano, ha ofrecido más de mil recitales en más de 25 países.

Michel Bouvard debe su vocación a su abuelo Jean Bouvard, alumno de Louis Vierne. Se formó en el CNSM de París (clases de escritura), luego en la clase de órgano de André Isoir, así como con los organistas de Saint-Séverin (Jean Boyer, Francis Chapelet, Michel Chapuis). Un primer premio en el Concurso Internacional de Toulouse (1983) marca el inicio de su carrera. Llamado por Xavier Darasse para sucederle en la clase de órgano del Conservatorio de Toulouse en 1985, prosiguió su acción en favor del patrimonio de la ciudad y de la región, y fundó en 1996, con Willem Jansen, el Festival internacional “Toulouse-les-orgues”.

Michel Bouvard también fue profesor de órgano en el CNSM de París de 1995 a 2021, donde desarrolló una original colaboración educativa con su amigo Olivier Latry que atrajo a estudiantes de todos los orígenes.

Titular del histórico órgano Cavaille-Coll de la basílica de Saint-Sernin de Toulouse, también fue designado en 2010 uno de los organistas “por distrito” de la Capilla Real del Castillo de Versalles.

## YASUKO UYAMA

Yasuko Uyama Bouvard Kioton jaio zen, Japonian. Tokioko Arteen Unibertsitate Nazionalean organista gisa graduatu ondoren, organo-ikasketak egin zituen Parisen Edouard Souberbielle eta Michel Chapuis irakasleekin, eta klabezinekoak, berriz, Huguette Dreyfusekin.
Geroago, pianoaren aldeko grina piztu zitzaion, eta sakon barneratu zen piano-ikasketetan Jos Van Immerselekin, Parisko Goi Mailako Musika Kontserbatorio Nazionalean. Ikasketak burutzean, nazioarteko bi lehenengo sari irabazi zituen: klabezinean (Parisko Nazioarteko Lehiaketa, 1979) eta organoan (Toledoko Nazioarteko Lehiaketa, 1980).
Musikari fina eta tekla-instrumentu horien guztien interprete oso maitatua da Yasuko Uyama Bouvard, eta gaur egun bakarlari gisa edo taldean aritzen da, esaterako, Tolosako Sacqueboutiers musika-taldean, Montaubaneko Les Passions orkestra barrokoan edota Ensemble Clément Janequin taldean. Hainbat CD argitaratu ditu, eta, haiei buruz, interpretazioaren fintasuna eta birtuosismoa nabarmendu ditu kritikak. 2006an, Le Salon Viennois musika-taldea sortu zuen bere pianoforte bikainaren inguruan (Christopher Clarke fabrikatzaileak egindako Walter-aren kopia).
Yasuko Uyama Bouvardek klabezina eta pianoa irakatsi zituen Tolosako Kontserbatorioan 20 urtez baino gehiagoz, 2021era arte. Saint-Pierre des Chartreux elizako organo barroko frantsesaren organista titularra ere bada. 2013an, CD bikain bat argitaratu zuen, J. Haydin-en sonatak eta bariazioak eta egile beraren organorako piezak txandakatuz), eta, 2015ean, Mozarten «pianorako eta bibolinerako» sonatei eskainitako CD bat plazaratu zuen, Stéphanie Paulet-ekin batera.

Yasuko Uyama Bouvard nació en Kioto, Japón. Después de graduarse como organista en la Universidad Nacional de Artes de Tokio, estudió Órgano con Edouard Souberbielle y Michel Chapuis en París y Clavecín con Huguette Dreyfus.
Más tarde desarrolló también una pasión por el Piano, que estudió en profundidad con Jos Van Immerseel en el Conservatorio Nacional Superior de Música de París. Sus estudios fueron coronados con dos primeros premios internacionales, en Clave (Concurso Internacional de París, 1979) y en Órgano (Concurso Internacional de Toledo, 1980).
Música refinada, intérprete muy solicitada de todos estos instrumentos de teclado, Yasuko Uyama Bouvard actúa como solista o con conjuntos como los Sacqueboutiers de Toulouse, “Les Passions” - orquesta barroca de Montauban, el Ensemble Clément Janequin... Ha publicado varios CD, en los que la crítica ha destacado la finura y el virtuosismo de su interpretación, y en 2006 fundó su propio conjunto, “Le Salon Viennois”, en torno a su suntuoso Piano-forte (copia del Walter realizada por el fabricante Christopher Clarke).
Yasuko Uyama-Bouvard enseñó Clavecín y Piano en el Conservatorio de Toulouse durante más de 20 años, hasta 2021. También es la organista titular del Órgano barroco francés de la iglesia St Pierre des Chartreux.
En 2013 publicó un notable CD alternando sonatas y variaciones de J. Haydn y piezas para órgano del mismo autor  y en 2015 un CD dedicado a las sonatas de Mozart “para piano con acompañamiento de violín”, con Stéphanie Paulet.

# BERGARA

**Ariznoako San Pedro Eliza / Iglesia San Pedro de Ariznoa**

**Maiatzak 3 mayo, Larunbata**

12:00etan

A.P. F. Boëly........................................Fantaisie et Fugue en Si M op. 18 nº6
(1785-1858)

C. Saint-Saëns....................................Fantaisie en Mi b M
(1835-1921) Prelude et Fugue en Si M op. 99 nº2

E. Gigout.............................................Cantilène en La M
(1844-1925) Scherzo en Mi M
Toccata en Si m

C. Loret...............................................Scherzo en Si m
(1833-1909)

G. Kriéger...........................................Toccata en Mi m
(1885-1914)

Kontzertua-Konferentzia / Concierto Conferencia
**Aitor Olea**

## AITOR OLEA

2008tik Bergarako San Pedro elizako 1889.urteko Stoltz-Frères organoaren organo-jotzaile titularra da eta 2014tik Bergarako Stoltz Frères organoaren lagunen elkarteko lehendakaria. Organo irakaslea da Gasteizko Jesús Guridi Kontserbatorioan.

Organo-ikasketak egin zituen CNR de Musique de Bayonne kontserbatorioan Mme. Marie Bernadette Carrau irakaslearekin, eta “Medaille d’Or” aipamena lortu zuen bertan. 20 urtez Lekeitioko Basilikako 1854. Urteko A. Cavaillé-Coll organoaren organista izan zen, eta Lea-Artibaiko Organo Jaialdia sortu zuen.

AUS_ART records-ekin 16 CD argitaratu ditu, tartean *Organos de Vasconia* eta *XXth Century Basque Organ Music*.

Euskal Herrian, Espainian, Frantzian, Belgikan, Alemanian, Irlandan, Italian, Ingalaterran eta Finlandian eman izan ditu kontzertuak.

Desde el año 2008 es organista titular del órgano Stoltz-Frères de 1889 de la Iglesia de San Pedro de Bergara y desde el 2014 presidente de la Asociación de Amigos del órgano Stoltz-Frères de Bergara. Profesor de órgano del Conservatorio Jesús Guridi de Vitoria-Gasteiz.

Estudios de Órgano en el CNR de Musique de Bayonne en las clases que impartía Mme. Marie Bernadette Carrau donde obtuvo la “Medaille d ‘Or”. Durante 20 años fue organista del órgano A. Cavaillé-Coll (1854) de la Basílica de Lekeitio y creador del Festival de Órgano de Lea-Artibai.

Con AUS_ART records ha publicado 16 CDs, entre los que se encuentran *Órganos de Vasconia* y *XXth Century Basque Organ Music*.

Ha ofrecido conciertos en Euskal Herria, España, Francia, Bélgica, Alemania, Irlanda, Italia, Inglaterra y Finlandia.

## USURBIL

**San Salvador Eliza / Iglesia de San Salvador**

**Maiatzak 3 mayo, Larunbata**

19,30etan

| | |
|---|---|
| J. Langlais (1907-1991) | Rhapsodie Grégorienne |
| O. Messiaen (1908-1992) | Chants d'oiseaux extrait du "Livre d'Orgue"<br>Joie et clarté des corps glorieux extrait des"Corps Glorieux" |
| C. Franck (1822-1890) | Pastorale opus 19<br>Final opus 21 |
| C.M.Widor (1844-1937) | Adagio et Final extrait de la 6ème symphonie |

Kontzertua / Concierto

**Erwan Le Prado**

## ERWAN LE PRADO

Erwan Le Prado organista André Isoir, Michel Chapuis eta Marie-Claire Alain irakasleekin trebatu zen nagusiki. Parisko Kontserbatorioan, lehen sariak eskuratu zituen organoan, inprobisazioan, baxu jarraituan, harmonian, kontrapuntuan, fugan eta XX. mendeko idazketan. Biarritzeko, Luzernako eta St. Albanseko nazioarteko lehiaketak irabazi zituen; lehenengo saria eskuratu zuen Suitzako Nazioarteko Lehiaketan, Genevan; Grand Prix de Chartres saria irabazi zuen 2000. urtean, eta errezital baten albuma grabatu zuen Radio-France irratirako. Horiek horrela, karrera zabala izan zuen, bai bakarlari gisa, bai orkestrarekin (Europan, Estatu Batuetan, Hego Amerikan, Japonian, Txinan, Sirian, etab.).

Caengo Kontserbatorioko organo irakaslea da, eta Falaiseko Parisot eta Saint-Etienne de Caengo Cavaillé Coll organo historikoen titularra. Irakasle gonbidatua da Oundle-eko Organoaren Nazioarteko Akademian, Cambridgen eta Oxforden, Leipzigeko Europako Akademian eta Errusiako Kaliningradeko Nazioarteko Akademian, eskola magistralak ematen ditu aldizka hainbat unibertsitatetan (Essen, Lübeck, Würzburg, Birmingham, Tokio, Basilea, etab.), eta epaimahaietan ere parte hartzen du (St. Albanseko, Chartreseko eta Nurenbergeko nazioarteko lehiaketetan edo Freiberg-eko Silbermann lehiaketan, besteak beste). 2023tik, Birminghamgo (Erresuma Batua) Unibertsitateko eta Goi Kontserbatorioko irakasle gonbidatua da.

Erwan Le Prado se formó principalmente con André Isoir, Michel Chapuis y Marie-Claire Alain. En el Conservatorio de París, ganó los primeros premios de órgano, improvisación, bajo continuo, armonía, contrapunto, fuga y escritura del siglo XX. Ganador de los concursos internacionales de Biarritz, Luzern, St Albans, primer premio del Concurso internacional suizo de Ginebra, ganó el Gran Premio de Chartres en 2000 y grabó un álbum de recital para Radio-France. Su carrera se desarrolló entonces ampliamente, tanto como solista como con orquesta (Europa, Estados Unidos, América del Sur, Japón, China, Siria, etc.).

Profesor de Órgano en el Conservatorio de Caen, es titular de los órganos históricos Parisot de Falaise y Cavaillé Coll de Saint-Etienne de Caen. Profesor invitado en la Academia Internacional de Órgano de Oundle, Cambridge y Oxford, la Academia Europea de Leipzig o la Academia Internacional de Kaliningrado en Rusia, también imparte regularmente clases magistrales en Universidades (Essen, Lübeck, Würzburg, Birmingham, Tokio, Basilea, etc.) así como para jurados (Concursos Internacionales de St-Albans, Chartres, Nürnberg, Concursos Silbermann de Freiberg…). Desde 2023 es “Profesor Invitado” de la Universidad y Conservatorio Superior de Birmingham (Reino Unido).

## ATAUN

**Tourseko San Martinen Eliza / Iglesia de San Martín de Tours**

**Maiatzak 4 mayo, Igandea**

12,30etan

J.U. Steigleder ...................................... Fantasia, oder Fugen Manier, 4 Vocum
(1593-1635)
From Tabulatur Buch "Darinner da auf Vater unser (1627)

Krzysztof Urbaniak ............................... Interludium I
(1984- )

J. J. Froberger ..................................... Toccata [II] in d "fatto a Bruxelles"
(1616-1667)

F. Correa de Araujo .............................. Quinto tiento de medio registro de tiple de séptimo tono
(1584-1654)

D. Buxtehude....................................... Praeludium in g
(1637-1707)

F. Correa de Araujo .............................. Tiento de medio registro de baxon 6º tono por cesolfaut
(1584-1654)

M. Weckmann...................................... Toccata in d
(ca.1616-1674)

K. Urbaniak......................................... Interludium II

J. Pieterszoon Sweelinck...................... Fantasia Cromatica Sw WV 258

Kontzertua / Concierto
**Krzysztof Urbaniak**

## KRZYSZTOF URBANIAK

2024tik organo historikoko irakaslea da Bremengo Hochschule für Künste zentroan. Aurretik, 2009tik gaur arte, Łódźeko Musika Akademiako (Polonia) Organo Katedran aritu da lanean. Kracoviako Musika Akademiako (Polonia) Organo Departamentuko irakaslea ere bada, eta bertan lan egiten du 2013tik.

Organo eta klabezin prestakuntza jaso zuen Stutttgarteko StattlicheMusik Hochschule zentroan eta Varsoviako Chopin Musika Akademian (Master, KA, Konzertexamen), Józef Serafin, Ludger Lohmann, JörgHalubeky LeszękKędracki irakasleen eskolak jasota. 2012an doktoratu zen Krakovian.

Krzysztof Urbaniak sari ugari jaso izan ditu organo sariketetan: 1. saria Arp-Schnitger-Orgelwettbewerb lehiaketan (Bremen, 2010), WillemHermans lehiaketan (Pistoia, 2009) eta Organorako Poloniako Musikaren 5. Lehiaketan (Legnica, 2002), eta 2. saria Internationaler Franz-Schmidt-Wettbewerb sariketan (Kitzbühel, 2006), eta PetrEben Nazioarteko Lehiaketan (Opava, 2004).

Krzysztof Urbaniak nazioarteko organo lehiaketetako epaimahaiko kide ere izan da, honako hauetan besteak beste: Musashino Organoaren Nazioarteko Lehiaketa (2023), Internationaler Dieterich-Buxtehude-Wettbewerb (Lübeck 2022), International Sweelinck-Wettbewerb (Gdańsk, 2021), Schnitger Organoaren Nazioarteko Lehiaketa (Alkmaar, 2019 u. 2015), Internationaler Gottfried-Silbermann-Wettbewerb (Freiberg, 2017).

Desde 2024 es profesor de Órgano histórico en la Hochschule für Künste de Bremen. A sus cargos anteriores pertenece la cátedra de Órgano en la Academia de Música de Łódź (Polonia), donde trabaja desde 2009. También es profesor en el Departamento de Órgano de la Academia de Música de Cracovia (Polonia), donde trabaja desde 2013.

Recibió su formación de Órgano y Clave en la StattlicheMusik Hochschule de Stuttgart y en la Academia de Música Chopin de Varsovia (Master, KA, Konzertexamen) en las clases de Józef Serafin, Ludger Lohmann, JörgHalubeky LeszękKędracki. En 2012 se doctoró en Cracovia.

Krzysztof Urbaniak recibió numerosos premios en concursos de Órgano: 1$^{er}$ premio: Arp-Schnitger-Orgelwettbewerb (Bremen, 2010), Concurso WillemHermans (Pistoia, 2009) y 5º Concurso de Música Polaca para Órgano (Legnica, 2002). 2º premio: Internationaler Franz-Schmidt-Wettbewerb (Kitzbühel, 2006), y Concurso Internacional PetrEben (Opava, 2004), Krzysztof Urbaniak fue miembro del jurado de Concursos internacionales de Órgano, entre otros: Concurso Internacional de Órgano Musashino (2023), Internationaler Dieterich-Buxtehude-Wettbewerb (Lübeck 2022), International Sweelinck-Wettbewerb (Gdańsk, 2021), Concurso Internacional de Órgano Schnitger (Alkmaar, 2019 u. 2015), Internationaler Gottfried-Silbermann-Wettbewerb (Freiberg, 2017).

Kontzertuz kontzertu ibili da azken 20 urteetan, besteak beste Letonian, Finlandian, Estonian, Lituanian, Suedian, Ingalaterran eta Alemanian, Herbehereetan, Austrian, Portugalen, Italian, Suitzan, Hego Korean eta Japonian.

2013tik 2016ra Łódźeko ArturRubinsteinPhilharmonic Hall-eko artista egoiliarra izan zen, eta 2017tik bertako bi organoen kontserbatzailea da. Pasłękeko organo jaialdien sortzailea eta zuzendari artistikoa da (AndreasHildebrandten 1717-1719ko organoa) eta Olkusz hiriko ECHOren zuzendari artistikoa (Hans Hummelen eta Georg Nitrowskiren 1611-1631ko organoa).

Aditua da Poloniako Errepublikako Kultura Ministerioaren eta Poloniako Errepublikako Kultura Ondarearen Institutu Nazionalaren organoetan, eta aholkulari jardun du Europako hainbat herrialdetan organoak zaharberritzeko eta eraikitzeko hainbat proiektutan.

CD grabazioak, musika edizioak eta organogintza historikoari eta interpretazio praktikari buruzko artikuluak argitaratzen ditu aldizka.

Su intensa carrera concertística le ha llevado en los últimos 20 años a Letonia, Finlandia, Estonia, Lituania, Suecia, Inglaterra y Alemania, Países Bajos, Austria, Portugal, Italia, Suiza, Corea del Sur y Japón.

2013-2016 fue Artista residente en el ArturRubinsteinPhilharmonic Hall de Łódź, donde es conservador de ambos órganos desde 2017. Fundador y director artístico de festivales de Órgano en Pasłęk (órgano de AndreasHildebrandt de 1717-1719) y director artístico de ECHO de la ciudad de Olkusz (órgano de Hans Hummel y Georg Nitrowski de 1611-1631).

Es experto en Órganos del Ministerio de Cultura de la República de Polonia y del Instituto Nacional de Patrimonio Cultural de la República de Polonia, asesorado numerosos proyectos de restauración y construcción de órganos en varios países europeos.

Publica regularmente grabaciones en CD, ediciones musicales y artículos sobre organería histórica y práctica interpretativa




Lege Gordailua: D-389-2025

musikene

GIPUZKOA
Ekin. Zaindu. Bizi.

Donostiako
Elizbarrutia
Diócesis de
San Sebastián